

Informazio-orria

Lurpeko urak ikertzeko eskabidea

Agiri honen xedea da, batetik, eskatzaileari jakinaraztea zer izapide egin behar duen lurpeko uren ikerketa eskatzeko, jabari publiko hidraulikoko lurpeko uren erabilera pribatiborako eskubidea eskuratu aurretik, eta, bestetik, adieraztea zer datu eta agiri aurkeztu behar duen horretarako.

1 Baimena nork eskatu behar duen

Zundaketa, putzu edo galeria bat egin nahi duen edozein pertsonak edo erakundek lurpeko uren nahitaezko ikerketa eskatu beharko du, inprimaki honen bidez: [Lurpeko urak ikertzeko inprimakia](#).

2 Nola eta non eskatzen den

Eskabide-eredu bat dago, eta han jasotzen da zer datu bete behar den eta zer agiri aurkeztu behar den espedienteak izapidetzeko. Eskabidea modu telematikoan bete daiteke, URaren webgunean, edo izapidea aurrez aurre egin daiteke, eskabidea beteta eta eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuta, hemen:

- Arroen egoitza nagusiko edo bulegoetako sarrera-erregistroetan:

1 Vitoria-Gasteiz

- Boulevard eraikina
- Gamarrako atea 1 A, 11. solairua
- 01013 Vitoria-Gasteiz

2 Bilbo

- Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua.
- 48011 Bilbo

3 Donostia

- Intxaurren 70, 1. solairua
- 20015 Donostia

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotzen diren lekuetan (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf>).

3 Jabari Publiko Hidraulikoa eta Zaintza Eremua

Uren Legearen testu batekin (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2001/BOE-A-2001-14276-consolidado.pdf>) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (<https://boe.es/buscar/pdf/1986/BOE-A-1986-10638-consolidado.pdf>), zehazten dute zein diren jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak: ibilguak, urtegiak, etab.

- Honako hauek osatzen dute **Jabari Publiko Hidraulikoa (JPH)**:
 - Ur kontinentalak, bai azalekoak bai lurpeko berriztagarriak, kontuan hartu gabe berritzeko denbora.
 - Korronte naturalen ibilguak, izan jarraituak edo etenak.
 - Laku eta aintziretako hondoak, eta ibilgu publikoetako azaleko urtegien hondoak.
 - Akuiferoak, ur-baliabideen xedatze- edo eragin-egintzen ondorioetarako.
 - Itsasoko ura gatzgabetzetik datozen urak.

Uren Legearen testu bateginak (ULTB) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (JPHE) ezartzen duten bezala, lege-xedapen edo administrazio-emakida bidez eskuratzen da jabari publiko hidraulikoaren erabilera pribatiborako eskubidea, erabilera kontsuntibo izan ala ez.

Uraren Euskal Agentziaren eskudantzia da jabari publiko hidraulikoari dagozkion baimenak eta emakidak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetan.

- **Administrazio-emakida.** Uren Legearen testu bateginaren 54. artikuluan sartzen ez den uren erabilera pribatibo orok administrazio-emakida behar du.
- **Lege-xedapen bidezko erabilera pribatiboa.** Finka baten jabeak finka horretatik igarotzen diren euri-urak eta ur geldiak aprobetxa ditzake, finkaren mugen barruan, eta muga bakarrak izango dira lege horretan ezarritakoak eta hirugarrenen eskubideak errespetatzetik eta eskubideaz abusatzea debekatzetik eratorritzen direnak. Muga horiek kontsultatzeko: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2001-14276>.
- Gainera, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, lur baten barruko iturburuetatik datozen urak lur horretan erabili eta lurpeko urak aprobetxatu ahal izango dira, betiere urteko bolumen osoa 7.000 metro kubikotik gorakoa ez bada. Gainustiatutzat jo diren akuiferoetan, edo gainustiatzeko arriskuan daudenetan, ezin izango da apartatu honen babespean beste obrarik egin, dagokion baimenik gabe.
- Ur horiek ezingo dira erabili sortzen eta igarotzen diren edo geldirik dauden finkatik kanpo. (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 84. eta 54. artikulua).

4 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ahal dela, dokumentazioa euskarri digitalean eta .pdf formatuan aurkeztuko da, elektronikoki sinatuta.

1. Kasu guztietan aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra:

- ☐ Eskabide-eredua eta fitxa (eskabide-ereduari erantsita daude), behar bezala beteta.
- ☐ Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua. Baimen-eskabidearen sinatzailea interesduna ez bada:
 - a) Ordezkaritza bidez izapidetzen duten pertsona fisikoek notario-ahalorde baten bidez egiaztatu beharko dute ordezkaritza, edo, bestela, fede-emaila publikoaren aurrean sinatutako ordezkaritza-akta baten bidez. Bi aldeek sinatutako idazki bat ere onartuko da.
 - b) Pertsona juridikoen kasuan, berriz, beharrezkoa izango da notario-ahalordea eta erakundea eratzeko eskritura aurkeztea, bai eta ordezkaritza eskabidea sinatzea ere.
- ☐ Obraren aurrekontua.
- ☐ Epea amaitu aurreko deskripzio-memoria:
 - 0 mapa, kokapen-planoa ([Goeuskadiren web-orria](#)) edo krokis xehatua.
 - Proiektuaren oinarritzko datuak:
 - Jabearen edo pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen izena.
 - Hargunearen kokapena, udalerria, katastroko erreferentzia.
 - Lursailaren jabetza-titulua.
 - Zulaketa egin duen enpresa eta eragiketaren zuzendari fakultatiboa.
 - Proiektuaren helburua.
- ☐ Beharrian hidrikoak: lurpeko harguneak bete behar duen eskari hidrikoaren justifikazioa. Aprobetxamenduaren erabilera eta helburuak eta ustiapen-araubidea, hauek adierazita: bat-bateko gehieneko emaria eta, aurreikuspenen arabera, urtean erabiliko den bolumena.
 - Karakterizazio geologikoa: zeharkatzea aurreikusten den zutabe litologikoa eta tokiko testuinguru geologikoa, jarduketa-eremuaren deskribapen geomorfologikoa eta hidrogeologikoa orokorra, akuifero objektiboa zein den eta gainjarritako akuiferorik dagoen ala ez adierazten duena.
 - Karakterizazio hidrogeologikoa eta hidrogeologikoa: lurpeko ur-masaren eta ustiari beharreko formazioen deskribapen orokorra, eremuko hidrogeologiaren karakterizazioarekin eta analisiarekin batera. Horrekin batera, uren konposizio kimiko zenbatetsia aztertu beharko da, eta inbentario batean jaso ur-puntuak (iturriak, iturburuak, ibaiak, beste putzu batzuk) eta hurbileko kutsadura-fokuak, gutxienez 200 m-ko erradiokoak (komeni da erradioa 500 metrora handitzea).
 - Proposatutako ponpaketa-saiakuntza edo ur-emariaren neurketa.

- Exekuzio-ezaugarriak:
 - Zuhaitzak mozteko edo bideak egokitzeko beharra.
 - Proposatutako zulaketa-sistema, zulaketa-diametroak eta zulaketaren sakonera zenbatetsia.
- Putzurako aurreikusitako diseinua:
 - Aurreikusitako hodi-mota.
 - Hodien diametroak.
 - Hartxintzarrez betetako eta zigilatutako tarteak.
 - Hoditeria artekatuko eta itsuko tarteak.
 - Hodi piezometrikoa jartzea.
 - Putzuari lotutako azpiegiturak.
- ☐ Fidantza edo abala eratu izana egiaztatzen duen agiria arroko erakundearen eskura jarri beharko du, baimena ematen bazaio, baimenetik eratorritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko. Fidantzaren edo abalaren zenbatekoa obren aurrekontuaren 100eko 4 izango da.

Baimenaren epea ez da inola ere bi urtetik gorakoa izango. Ikerketa-baimenaren epea amaitu eta bi hilabete igaro baino lehen, titularrak exekuzioaren osteko memoria bat aurkeztu beharko dio Uraren Euskal Agentziari, gutxienez honako informazio hau emanda:

- ☐ Putzuaren azken kokapena.
- ☐ Zutabe litologikoa: putzua egitean zeharkatutako materialen irudikapen grafikoa eta deskribapena, haien lodiera eta ezaugarriak neurtuta. Zulaketan zehar egindako argazki-erreportaje batekin batera aurkeztuko da.
- ☐ Informazio hidrogeologikoa:
 - Maila piezometrikoa.
 - Emaria zer akuiferotatik kendu den.
- ☐ Putzuaren eraikuntza-krokisa, azken ezaugarriak adierazita:
 - Sakonera.
 - Putzuaren diametroa.
 - Hoditeria artekatua eta itsua instalatua duten tarteak.
 - Zundaketaren aurreiragazkiaren azken ezaugarriak.
 - Hormen zigilatzea.
 - Erabilitako material motak.
- ☐ Putzuarekin lotutako azpiegituren deskribapena eta ezaugarriak.
- ☐ Egindako ur-emariaren neurketaren edo ponpaketa-saiakuntzaren emaitzak: ponpaketa-saiakuntzetan lortu diren lursailaren parametro hidraulikoak, putzuaren edukierak eta akuiferoaren erreakzioak aurkeztu behar dira.

Ikerketa aldekoa bada, interesdunak 6 hilabeteko epea izango du emakidaren edo erabilera pribatiboaren eskaera formalizatzeko.

Ikerketa negatiboa bada, edo ustiapena interesekoa ez bada, putzu zigilatu eta lursaila leheneratu beharko da, xedapen hauetan ezarritakoarekin bat etorriz: uztailaren 18ko 665/2023 Errege Dekretuaren II. eranskina (665/2023 Errege Dekretua, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen duena); uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuaren bidez onartutako Uraren Administrazio Publikoaren Erregelamendua, eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen.

5 Izapidetzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, izapide hauek egingo dira:

1. Datuak egiaztatzea, dokumentazioa aztertzea eta, behar izanez gero, dokumentuak eskatzea.
2. Arroko Plan Hidrologikoarekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna baloratzea.
3. Informazioa jendaurrean jartzea, EHAAn. Argitaratze-tasa pertsona edo entitate eskatzaileak ordaindu beharko du.
4. Nahitaezko diren edo interesgarritzat jotzen diren txostenak eskatzea organismoari, unitateari, erakundeari edo entitateari.
5. Alegazioren bat aurkeztu bada, pertsona edo erakunde interesdunari ikustaldia emango zaio, 15 eguneko epean adieraz dezan bere interesak defendatzeko egokitzat jotzen duena.
6. Txosten teknikoa.
7. Pertsona edo erakunde interesdunei entzunaldia ematea, hala badagokio, baldin eta alegazioren bat aurkeztu bada, edo jasotako txostenen bat negatiboa izan bada edo txostenen batek emakidaren funtsezko ezaugarriak aldatzen baditu.
8. Pertsona edo entitate eskatzaileari jakinaraziko zaio zer baldintzatan eman daitekeen emakida, hamabost egun balioduneko epean adostasuna adieraz dezan edo egokitzat jotzen dituen oharrak egin ditzan.
9. Ebazpena ematea.
10. Eskatzaileak Uraren Euskal Agentziari exekuzio osteko memoria jakinaraztea.

Espedientea izapidetzen amaitu ondoren, Uraren Euskal Agentziak egokitzat jotzen dituen zaintza-, ikuskapen- eta egiaztapen-lanak egingo ditu, ebazpena betetzen dela bermatzeko eta jabari publiko hidraulikoa zaintzeko.

6 Ebazpenaren ondoreak

Ebazpenak amaiera emango dio hasitako administrazio-prozedurari.

Lurpeko uren ikerketaren dokumentuak bere titularrari legitimazioa ematen dio aurreikusitako ikerketa egiteko, alde batera utzita beste organo edo administrazio batzuek eska dezaketen beste edozein baimen. Dokumentuan, titularra identifikatzen da, zundaketaren ezaugarriak eta bete beharreko baldintzak ezartzen dira, eta exekuzioa hasi eta amaitzeko gehieneko epea finkatzen da, bai eta ikerketaren balio-aldia ere. Baldintzak betetzen ez badira, zehapena jarriko da, edo emakida iraungiko.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

7 Ebazteko epea

Uraren Euskal Agentziak gehienez ere sei hilabete izango ditu aprobetxamendu hidrauliko baten emakidarako eskaera ebazteko. Epe hori igarotakoan, eskaera ezetsizat joko da.

Berariazko ebazpenik ez badago, inola ere ezin izango da ulertu baimena presuntzios baietsi denik.